

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko maiatzaren 21a. IX. urtea. 2.597. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Berdintasun teknikari bat kontratatuko du Tolosako Udalak

Indarkeria matxistaren aurkako politikak indartzeko hitzarmena sinatu du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean ◻ 3


44 herri baratze ditu Alegiako Belaustegi auzoko parkeak

Hogeita hamasei erabiltzailerekin jarri berri dute martxan, eta oraindik herritarrek izena emateko aukera dute; alkatea eta erabiltzaileak «pozik» agertu dira proiektuarekin ◻ 2



L. TERRAJOLAS

→ **Jendetza bildu da Izaskunen.** Izaskungo jaiak atzo arte luzatu ziren, eta Ibarra jai eguna izaki jende ugari gerturatu zen ekitaldiez gozatzera. Alurr dantza taldearen saioak, esaterako, ohi bezala ikusmin handia piztu zuen. Eskualdeko hainbat herritan izan da hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera. ◻ 4-5



Aimar Agirresarobe, korrika. HITZA

Bilbon «izugarritzko lasterketa» egin du Aimar Agirresarobek

Ezustekoa emanda III. Bilboko Triatloia irabazi du Aimar Agirresarobe tolosarrak; Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideak 4 ordu eta 19 minutu behar izan zituen proba amaitzeko ◻ 7

Bengoetxea nagusitu da Jaunarenaren aurkako buruz burukoan

Herriartekoan aurrera egin dute Zizurkilek, Tolosak eta Alegiak; Ogi Berri Pilota Txapelketan ikusle ugari izan dira beste behin ◻ 6

Ibarrako areto futbol taldeak hirugarren mailako liga irabazi du

Azken partidaren erabaki da liga; arrazoi ekonomikoak tarteko, oraindik bigarren B mailara igoko diren ez dute argi ibartarrek ◻ 7



HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

Sardina jatea



Ahara astearen baitan, ostegun, ostiral eta larunbaterako

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

Bonberenea Txaranga eta lagunak **KONTZERTUA**



Maiatzak 24, ostirala • 22:00etan Tolosako Sakramentinoetan

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu



Udaberri dantza taldea + Lask abesbatza
Maiatzak 26, igandea • 12:00etan Tolosako Leidorren

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

FLAUTONIA • BLAITZORRA LANBIDE HEZKETA ATX BIKEN LANBIDEA OROZKOI PABITZA ABERTIA	SAIBANDE • SAIBANDE SAIBANDE OROZKOI PABITZA ABERTIA www.sabandea.com 943 551 799	MAIATZAK 22-23 MAYO OROZKOI PABITZA ABERTIA 17:00 - 20:00 (Orozkoi Pabitzaren Abertia)
---	--	--

36 erabiltzailerekin hasi da martxan Alegiako baratze parkea

Lezo eta Usurbilen ondoren, proiektu hau abian jartzen duen Gipuzkoako hirugarren udalerrria da Alegia

Mikel Iraola Alegia

Duela hilabete pare batetik martxan bada ere, Alegiako baratze parkea ostiralean inauguratu zuten. Lezo eta Usurbilen ondoren, honelako proiektu bat martxan jarri duen Gipuzkoako hirugarren udalerrria da Alegia.

Belostegi auzoan kokaturik dago baratze parkea. Aitzina batean ere, baratzeak zeuden lur-eremu horretan, baina bi metro beherago. Orain, bete lana egin eta errepidearen altuera berean jarri dute. 60 metro karratuko 44 baratze osatuta dago, eta egun 36 erabiltzailek eman dute izena. Horrez gain, ur putzuak, tresnak uzteko etxola bat eta konposta egiteko eremuak daude guztien eskuragarri.

Baratze parkeak helburu anitz ditu: alde batetik, ekoizpen ekologikoa sustatzea, izan ere, erabiltzaileek ez dituzte ongari kimikoak erabiliko, eta baldintza batzuk bete beharko dituzte. Bestalde, baratzetatik kontsumo propiorako jakiak ekoiztu eta lur-errekiko lanketa egiten jakitea da. Helburu soziala ere badu, izan ere, herritarren eta belaunaldi ezberdinen arteko topagune bihurtu nahi dute baratze parkea.

Martxoan prestatu zuten eremu hau, eta apirilaren zehar, nekazaritzaren oinarrien inguruko ikastaro bat eskaini zieten. Hemendik aurrera, lanean jarduteko aukera izango dute izena eman duten 36 erabiltzaileek. Hilabetean behin, gainera, aholkularitza zerbitzu bat izango dute Ekoguneko langileen eskutik. Horrez gain, urtean bizpahiru ikastaro eskainiko dira. «Hasieran, oina-



Belostegi auzoan kokatzen den parkeak 44 baratze ditu. M. IRAOLA

↓ Ezaugarriak

BARATZE PARKEA

- **Baratze kopurua.** 44.
- **Erabiltzaile kopurua.** 36.
- **Lur-sailen neurriak.** 6x10 m.
- **Eremu komunak.** Tresnak uzteko etxola, ur putzuak eta konposta egiteko eremuak erabiltzaile guztien eskura.
- **Ikastaroak.** Urtean bizpahiru. Hasieran, nekazaritzaren oinarri buruz; ondoren, ongariaren edota izurriteen tratamenduen inguruan.
- **Izen-ematea.** Alegiako udalera edota erabiltzaile taldeko norbaitek kontaktuan jarrita.
- **Kuota.** Urtean, 60 euro.

rrii buruzko kurtsuak antolatutitu dugu, baina pixkanaka zehatzagoak egingo dira, adibidez, ongari edo izurriteen tratamenduei norbaitek kontaktuan jarrita. Unai Iraola, Alegiako alkatea pozik agertu da proiektuaren has-

tapenarekin, eta esan du harrera ona izan duela. Bestalde, udalaren izenean eskerrak eman nahi izan dizkie Kutxabank eta Ekoguneari. «Kutzak 40.000 euroekin lagundu du proiektua eta azpiegituren obrak egiteko erabili dugu hori. Momentuz aurrekontuan sartutakoa baino gutxiago gastatu dugu, eta diru hori etorkizuneko gastuetarako gordeko dugu».

Libre geratu diren zortzi lur-sailak herritarren esku daudela gehitu du alkatea. «Udalean bertan edo erabiltzaileek osatzen duten elkarteko norbaitek hitz eginda eman dezakete izena interesatuek». Erabiltzaile bakoitzak, urtean 60 euroko kuota ordaindu beharko du lur eremurengatik. Gehienez, lau urtera arte luzatu daiteke baimena.

Erabiltzaileak, pozik

Baratze parkean izena eman duten herritarrek ere gustura agertu dira horrelako proiektua abian jartzeagatik. «Interesgarriak dira horrelako gauzak, nekazaritzan inplikatzeko laguntzen du» dio Xanti Aparizio erabiltzaileak lanean ari den bitartean. «Albakak, ezkaia, marrubiak, mugurdiak eta ahabiak landatu ditut. Gero, perrexila eta azenarioa landatuko ditut. Eta gerora, tomatea eta artoa ere bai» dio.

↓ Iragarki laburrak

LANA

Etxeko lanak. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Auta badauka. Kontakturako deitu telefono hauetakoren batera: 943 696882 / 606 521992.

Konpostajearen arazoak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Konpostajeko teknikaria izatearen abantaila nagusia, konpostagailuak montatu, bisitatu eta ikastaroak egiteaz gain, jendeari laguntzeko aukerazate da.

Konpostajeak normalean ez luke ez usain txarrik izan behar, ezta euli edo bestelako xagutxo inbasiorik sortu behar. Arazo hauetako zerbait gertatzen bada, hor goaz gu! Gaurko zutabe xume honetan, jendeak konpostajea egitearekin izaten dituen arazo ohikoak bildu eta izendatu ditut. Beraz, konpostajeari beterrano edo hasiberria bazara, bota begiradaxo bat zutabetxo honi!

Arazo ohikoetako bat, *fruta puera* deitzen diodan fenomeno da. Konpostagailu hauetan, fruta eta barazki nahas-mahas handia egoten da, umetxoei askarian ematen zaizen fruten pure bat bezala. Hala ere, konpostagailuko pure honek ez du fruta usain gozoa, nahiko ustel usain txarra baizik. Aireztagailua sartzen dugunean, ateratzea ederki kostatzen da, pure hark, nolabaiteko sukzioa egiten baitu.

Konpostagailuko fruta pure hau, material lehor gutxiegi bota izanagatik sortzen da. Material lehortan, konpostagailuko humeatsua xurgatzeaz gain, nolabaiteko egitura ematen dio konpostari, andamio baten moduan. Ez badugu behar adina material lehor botatzen, ez dago andamiorik eta gure konpostagailu barrena zapal zapal egiten da eta aipatutako fruta purea sortzen da. Egin andamio eder bat konpostagailuari!

Bigarren arazorik ohikoena, *euli extralurtarren inbasioa* da. Biologoa izanik, hiru euli mota identifikatu ditut gure konpostagailuetan, baina ezin gehiago ikertu... egunak 24 ordu ditu! Ez da dibertigarria, gure konpostagailuko tapa ireki eta milioika euli gure aurpegi, ile eta sudurrean barrena sentitzea. Askotan arnastu dut euli hori hau eta benetan diot, hurrengo hiru egunetan nere musuzapian euliak agertzen direla.

Euli hauek oso normalak dira gure konpostagailuetan, tenperatura egokia dute bertan, babestuta daude eta nahikoa jana daukaten ugaldut egiten dira. Hoberena, fruta eta barazkirik ez uztea oso bistan da, saiatu aireztagailuarekin ongi lurperatzen eta material lehor apur batekin tapatu guztia, ikusiko duzue nola euliak gutxizten diren. Gainera, tarteka eulitxoei, aireztagailuarekin bisitaxo bat egiten badiezue beraien pake

santua etenez, agian ez dira hainbeste ugaldutuko.

Hala ere, pentsa euli eta dauden bestelako xomorro miragarriak direla gure materia organikoa konpost bihurtzen dutenak, beraz, konpostajea egin nahi duen orok, xomorroen lagun izan behar du. Zorionez ez dugu zentimetro bat baino handiago den xomorrorik, beraz, lasai, ez dago konpostagailuan ehizatu nahi dugun xomorro haragijalerik. Gainera, gu baino lehenago daude lur planetan.

Hirugarrenez, *hojaldrezko konpostagailua* dugu. Garrantzia handia ematen diot, konpostagailua goitik behera aireztatzeari, nire esaldi aipatuena da: *goikoa behera, behekoa gora, aldamenetako erdira eta erdikoa aldamera*. Badakit zenbait liburuetan, geruza bidez nahastea gomendatzen dela, kremazko hojaldre baten itxura emanez. Baina esperientziak esaten dit, gure hojaldrezko konpostagailuan, geruza gogor edo ezegoki bat badago, azpitik doazen xomorroek ezingo dutela igaro eta gure konpostagailu konpostagailua dugu. Ez naiz odolki zalea, eta benetan nazka handia ematen dit odolki baten barruan, grasa zati erraldoiak topatzea, odolkiari kolore ezberdinetako barrunbe pintarratua emanez. Odolki baten barrua bezala, konpostajearen barrena zati txiki batea egon behar du, zenbat eta zati txikiagoak bota hobea. Sagar osoak, arrautza azal ilada luzeak edo oilasko osoak botatzen baditugu, usain txarra areagotuz gainera, aireztapena zailagoa egiten du. Konpostajeari hoberenen gomendioa izan da, ongi txikitutako hondakinak botatzearena.

Ikusten duzuenek, konpostajea ez da zaila eta gainera, beraren ondorioz sortzen diren arazoak konpostajea oso erraza da. Bilatu zuen herrian konpostajeari beterrano bat, eta jarraitu bere gomendioak.

Beraz, hartu pote txiki bat, bete bere bolumenaren %10a alkoholez eta beste guztia urez. Gero bota bertara, konpostagailu barruan topatzen duzun xomorro ale batzuk eta ipini data, lekua, eta informazio gehigarriren bat potoari. Gero idatzi bioaniztasunetik@hotmail.com eta neu joango naiz pertsonalki potoak jasotzera. Interesgarria izango litzateke denon artean konpostagailuetako faunaren bilduma bat egingo bagenu, etorkizuneko biologo batek, zuen sema-alaba edo biloba bat izan daiteke, berau aztertzeke. Eta gogoratu, eskolarik ez konpostagailurik gabe! Konpostazank!



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Txistulari Bandaren urteurreneko diskoaren aurkezpena

Bandak 40 urte bete dituela ospatzeko diskoa grabatu du; gaur aurkeztuko du, Topic-en, 20:30ean

I. Terradillos Tolosa

Tolosako Udal Txistulari Bandaren kontzertua izango da gaur, Topic zentroan, 20:30etik aurrera. Ahora! Astearen barruan kokatzen den emanaldia berezia izango da, bertan bandaren 40. urteurrena dela eta egin duten diskoa aurkeztuko baitute.

Itxiki Letamendia Txistulari Bandaren zuzendariak azaldu duenez, urteurrenaren harira, «zerbait berezia» egin nahi zuten bandako kideek. Bada, disko bat egitea erabaki zuten, eta «oso gustura» geratu dira emaitzarekin: «Pozik gaude egindako lanarekin; gainera, disko bat egitea ga-



Txistulari Bandako kideak kontzertu batean, Musika Eskolan. HITZA

rrantzitsua da, betirako hor geratuko delako».

Sei abestiz osaturiko lana da. Horietako bi herrikoiak dira, *Segurako alborada* eta *Lexearena*, eta gainerakoak, Letamendiak berak eginak. «Zapatariarena, Gure Txokoa elkartearentzat egindakoa, Laiotz elkartearen-

tzat eginikoa, Uzturre mendiari eginiko beste bat, eta lagun batzuei eskainitako bat», azaldu du Letamendiak.

Musika ezezki, letra ere badute kantek, gehienak Pako Gereñuk landuak. Letra horiek abesteko ardura, berriz, Tolosako Musika Eskolako koruek izan dute. Hiru

abesti gaztetxoek koroak abestu dituzte, eta gainerako hirurak helduenak.

Bestalde, Txistulari Bandako kideez gain, Musika Bandako bi tronpetak ere parte hartu dute diskoan, eta baita bi perkusionistak ere. Era berean, Koldo Tarragona eta Amaia Lizasok ere parte hartu dute akordeoiarekin bi abestitan.

Kilometroekin bat

Gaurko emanaldian diskoan parte hartu duten artista guztiak izango dira Topic zentroko taula gainean. Diskoari dagokionez, aste-bete barru ikusiko du argia. Txistulari Bandak Tolosa&Co merkataria eta ostalarien elkartearen laguntza eskertu du, «beraie esker egin ahal izan baitugu diskoa».

Hain zuzen ere, 1.000 ale jarriko dituzte salgai, eta erdia Kilometroien ematea erabaki dute: «Aurten Kilometroak Tolosan egokitu

dela ikusita, ideia polita iruditu zaigu ekimenari ematea disko horiek, eta saldutakoa eurentzat izatea». Bada, Kilometroen dendan

Bandaren diskoekin irabazten dutenaren erdia Kilometroiei bideratuko diete

izango da salgai, eta merkatarien eta ostalarien elkartearen barruan dauden komertzioetan ere bai.

Poesia irakurketa

Bestalde, Ahora Astearen barruan, *Ezer gehiago behar gabe* liburua poesia irakurketa izango da, gaur, udal liburutegian, 19:00etan hasita. Karlos Linazasoro idazle tolosarraren lanak Xabier Lete poesia saria jaso zuen. Irakurketara joaten diren guztiak liburu bana oparituko zaie.

• tolosa@hitza.info

Indarkeria matxistaren aurkako politikak indartzeko hitzarmena

Tolosako Udalak Berdintasun teknikari bat kontratatuko du, Foru Aldundiarekin elkarlanean

Itzea Urkizu Tolosa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosako eta Ordiziako udalak eta Urola Garaiko Mankomunitateak lankidetzaz hitzarmenak sinatu dituzte, udal esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaren aurkako politikak indartzeko. Hitzarmen hauen bidez, Berdintasun Zuzendaritzak «gizarte guztiaren ongizaterako oinarri-oinarrikoak diren zereginetan kalitatezko lanpostu publikoak sortzearen aldeko apustua» egiten du.

Lankidetzaz hitzarmen hauen bidez Foru Aldundiak 60.000 euroko diru laguntza emango du berdintasuneko hiru teknikari lanaldi erdiz kontratatuzko Tolosako eta Ordiziako udalaren eta Urola Garaiko mankomunitateen.

Laura Gomez Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko zuzendariak adierazi duenez, «helburua da lanpostu espezializatuen sortzea berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan esparruan, lan baldintza egoki eta iraunkorretan». Gomezen ustez, «hainbeste



Ibai Iriarte Tolosako alkatea, Oihane Zabaleta Urretxuko alkatea, Laura Gomez Berdintasuneko zuzendaria eta Igor Eguren Ordiziako alkatea. HITZA

alderdi dituen krisi egoera honetan, premiakoa eta atzeraezina da pertsonen bizitzaren prekarietateari aurre egiteko lan egiten duten politikak abian jartzea, emakumei gogorrago erasaten baita, eta pertsonen zaintzan oinarritutako beste eredu bat erakitzeko saiatzea». Berdintasun zuzendariak gaineratu duenez, «ia emakume guztiak hartu behar izaten dute beren gain bizitzeko ezinbestekoa den zaintza hori, eta gainera modu ikusezin eta prekarioan, eta hautua egiteko aukerarik gabe. Era berean, emakume guztiak indarkeria matxistarekin gabe bizitzeko dugun eskubidean

aurrera egin jarraitzea lortu nahi dugu».

Gomezek hiru toki erakundeek bide horretan aurrera egiteko azaldu duten «konpromiso politikoa garrantzia» azpimarratu du: «Apustu politikoa hori gizartearen ongizaterako oinarriko zerbizu publikoetan murrizketa ikaragarriak dauden garai honetan, ur-lasterraren kontra igeri egitea bezala da. Beste plan bat dagoela frogatzen ari gara, eta krisi sistemiko honetatik gizarte eta genero desberdintasunak areagotzea legitimatu gabe ateratzeko betebeharrak dugun».

Zuzendariak gogorarazi due-

nez, hitzarmen horiek berdintasuneko eta indarkeria matxistaren aurkako arloko indartzeko asmoz Foru Aldundiak Gipuzkoako udal guztiak 2012an egindako proposamenaren emaitza dira. Akordioaren arabera, bi aldeak konpromisoa hartzen dute lanpostu horiek legezko zehar finantzatzeko. Foru Aldundiaren diru laguntza % 100ekoa izango da aurretik eta murriztuz joango da politikari-poliki; udalena, berriz, areagotuz joango da, eta, azkenean, kostu guztia beren gain hartu beharko dute. «Hau da, ziurtatu dugu lanpostuak ez direla desagertuko Foru Aldundiaren diru laguntza bukatu ondoren», zehaztu du Gomezek.

Kontratazioa diruz laguntzeko zenbait baldintza ezarri ditu Foru Aldundiak. Batetik, gutxienez egun erdiko beste kontratu bat egitea. Horrez gain, kontratuak zuzenean izan behar du eta ezin da aholkularitza enpresa baten bidez egin. Kontratatuak pertsonak egiaztatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean gutxienez 150 orduko prestakuntza espezializatua duela edo gutxienez 2 urteko lan esperientzia duela berdintasun teknikari gisa. Bestetik, lanpostuak administrazio publikoko A edo B sailkapen taldean egon beharko du, eta, azkenik, hirugarren hizkuntza eskakizuna, EGA edo baliokidea izatea.

→ Laburrak

Maiatzaren 30eko greba dela eta, bilkura, gaur

ANOETA › Maiatzaren 30erako euskal gehiengo sindikalak eta 60 inguru eragile sozialek deitu duten greba deialdia dela eta, Anoetako M30 greba batzordeak bilkurara deitu ditu herritarrik. Gaur izango da bilera, Anoetako udaletxean, 18:30etik aurrera.

Autoezagutzak ikastaroa emango dute Larramendin

TOLOSA › Larramendi Bizirik auzo elkartearen eskutik *Autoezagutza eta txakrak* ikastaroaren aurkezpena egingo dute gaur, 19:00etatik 21:00etara, Larramendi auzoko elkarteko lokalean (Arkaute parkean). Urteko ikastaroa Maria Santos Agote naturopata eta kiromasajistak emango du.

Adinekoak zaintzen dituztenentzat hitzaldia

BERASTEGI › Berastegiko Udaleko gizarte zerbitzuak adinduen zaintzen dituzten familiei zuzenduriko hitzaldiak antolatu ditu, Sendian programaren bitartez. *Emozio kudeaketa* hitzaldia hilaren 23an, 24an, 30ean eta 31n emango dute, irekiak izango dira, baina aurrez izena ematea gomendatu dute. Parte hartu nahi dutenek gizarte zerbitzuetara (943 68 36 20) edota udalera (943 68 30 00) deitu beharko dute.

Urteko hilabeterik bizienetakoa da maiatza, bai Tolosaldean eta bai Leizaldean. Asteburua hau izan da horren erakusle.

Kulturaren eta aldarrien bidezidorrak

Itzea Urkizu

Maiatzaren hirugarren astea hasi berri den honetan, urteko aierburua gehien hitza dituen hilabete ordea bete da jada. Hilaren lehenarekin hasita, kultura, kirola, protestak, nahiz bestelako jardunaldiek tonuak izan dira Tolosaldean eta Leizaldean, eta pasa berri den asteburua hau ere ez da gutxiago izan.

Ostirala kulturaren agertokia izan zen eskualdean, eta musika eta zinezaren bidezidorrez gozatu zuten herritarrak. Leiztan, Emilio Martínez-Lazaro zinezuzendariaren *Ocho apellidos vascos* filmeko casting-a izan zen, eta laster iritar askok parte hartu zuten, udaletxean egin zituzten probetan. Tolosan, berriz, *Berria* egunkariaren 10. urteurrenaren harira, Anje Duhalde maskarari lapurtarrek kontzertua eskaini zuten Leizko aretoan.

Kulturarekin jarraituz esnatu zuten larumbata ere, Museoen Nazioarteko Eguna ospatu baituzten Tolosaldean. Topic zentroak, Gorrokatzei musesak, Ur Marak eta Larraungo Elkano musesak atzerriekin jardunaldia egin zuten. Tolosan, besteak beste, zuzeneko musikaz gozatu ahal izan zuten museoetako bisitariek.

Larunbat goiza, ordea, aldarrikapenerako tarte gisa ere aprobetxatu zuten Anuncion klinikako eta Huyck Wagner Perot enpresako langileek. Murrizketen aurka artu ziren lehenak, eta kalentzean aurka besteok. Triangulo plaza, hain zuzen leku bera aukeratu zuten Kirikibo aisialdi taldekoek, Saharara laguntza baliatzeko postua jartzeko.

Festa giroa Aitzondo bailaran izan zen nagusi, batetik, Aitzondoko gazteen I. topaketa ospatu baitzuten. Eguraldi txarrari aurre eginez, Villabonako Berdura plazaiko aterpean egin zuten baz-

kari legea, eta perranda giroan jarraitu zuten.

Barrako Izaskun auzoan ere, asteburua seinatuta izan da igarotakoan. Larunbatean, hala ere, bertin behe-geratu behar izan zuten zaldi lasterketak, eguraldi medio, baldintza kaskarrak zirelako proba hasteko. Atzo, hala ere, aterrupei esker, Potagorriko noren eta Lizasoren bertso aleaz gozatu ahal izan zuten hainbat herritarrak, gizaan.

Igandean, azkenik, azokak izan ziren protagonista. Alkizan, denbora bankuak antolatutako truke azoka antolatu zuten frontoian, eta Berrobi bigarren ospatu zuten, Udaberriko merkaturak.

Tolosan, Ahoari! Astoko patin festa ez zen nahi bezala irten eurragatik, eta Uzturpe frontoian egin zituzten jarduerak. Leiztan, berriz, kultur-aste jendetsuaren barruan, Hirutxulo folk taldea artu zen Gaztaganan, eta jende asko bertaratu zen ikustera.



Leitza | Casting-a egin zuten hainbat herritarrak. | IZAZKUZ



Tolosa | Anje Duhalderen Berriaren aldeko emanaldia. | IZAZKUZ



Villabona | Berdura plazan baskaldu zuten Aitzondoko gazteek. | IZAZKUZ



Tolosa | Zuzeneko musika izan zen Tolosako bi museoetan. | IZAZKUZ




Tolosa | Kirikibo aisialdi taldeak postua jarri zuten, Sahararen alde. | IZAZKUZ



Tolosa | Ahoari patin festa Uzturpe frontoian egin zuten, eguraldiagatik. | IZAZKUZ



Alkiza | Denbora bankuak truke azoka antolatu zuten igandekoan. | IZAZKUZ



Berrobi | Udaberriko II. merkaturak igandean izan zen, kultur-astearen barruan. | IZAZKUZ



Leitza | Hirutxulo folk taldea artu zen Leitzaiko kultur-astean, Gaztaganan. | IZAZKUZ



Ibarra | Peñagarikano eta Lizaso artu ziren, atzo, bertsoetan. | IZAZKUZ



Tolosa | Asuncioneko langileek ekarretaratzea eta informazio banatzea egin zuten larunbatean. | IZAZKUZ



Tolosa | Huyck Wagner Perot-eko langileek ere beste asteburu batez hartu zuten plaza. | IZAZKUZ

BIRZIKLAPEN BIRA

Nik birziklatzen dut.

GAZTE VILLABONA ASTEASU TOLOSA

10:00 - 12:00

12:00 - 14:00

14:00 - 16:00

16:00 - 18:00

18:00 - 20:00

20:00 - 22:00

22:00 - 24:00

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA	
Azken jardunaldia	
Ibarra-Santurtzi	7-2
Laskorain- Laskorain	7-3
Egintza-Gasteizko Aurrera	5-5
Hirukide-Sestao	2-0

Saillkapena

1. Ibarra	71p
2. Gasteizko Aurrera	70p
3. Santurtzi	67p
4. Bilbo	63p
5. Goierrri	50p
6. Laskorain	47p
7. Tolosala Hirukide	47p
8. Inter Eder	45p
9. Soloarte	39p
10. San Jorge	35p
11. Buruntza	32p
12. Zarautz	32p
13. Mallabia	32p
14. Egintza	29p
15. Sestao	26p
16. Gora	8p

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

33. Jardunaldia	
Real Union-Tolosa	3-1

Hurrengo jardunaldia

Tolosa-Urola	
--------------	--

Saillkapena

1. Oiartzun	75p
2. Hernani	73p
3. Real Union	71p
4. Aretxabaleta	66p
5. Berio	53p
6. Hondarribia	49p
7. Bergara	49p
8. Tolosa	46p
9. Aloña Mendi	40p
10. Lagun Onak	37p
11. Zarautz	37p
12. Ostadar	35p
13. Beti Gazte	35p
14. Touring	35p
15. Mondragon	34p
16. Urola	32p
17. Aurrera	32p
18. Trintxerpe	25p

PILOTA

LEHEN MAILAKO PILOTA

TXAPELKETA, BANAKAKOAK	
Final-laurdenak	
Bengoetxea VI	22
Jaunarena	10

Finalerdiak

Juan Martinez de Irujo	
Bengoetxea VI	

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO

TXAPELKETA, ESKU PILOTA

Final hamaseirenak, itzulerako partidak	
Zestoa	1 (2)
Alegia	2 (4)
Zumarraga	1 (2)
Tolosa	2 (4)
Lezo	1 (1)
Zizurkil	2 (5)

Final-laurdenak, joaneko

partidak	
Bidegoian	
Alegia	

Berrobi

Tolosa	
Zizurkil	
Bergara	

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO

TXAPELKETA, ZESTA PUNTA

Bigarren jardunaldia	
Mutriku	2
Tolosa	1

Hurrengo jardunaldia

Donostia	
Tolosa	

MIGEL SOROAREN

OROIMENEZKO I. OGI BERRI

TXAPELKETA

Kadeteak	
Laso-Oskoz	22
Petite-Beloki	21
Jubenilak	
Altuna-Ibarrondo	22
Espinal-Alduntzin	10
Etorkizunekoak	
Arrieta-Gorrotategi	22
Urbieta-Etxamendi	15

SASKIBALOA

LEHEN MAILA

Azken partida

Zarautz	85
Bide Bide Donostia	74

Saillkapena

1. Mikelidi	22-8
2. Askartza	21-9
3. Atletico San Sebastian	19-11
4. Asesoria SAF	19-11
5. Bide Bide Donostia	19-11
6. Lizuan.com	17-13
7. Mondragon unib.	17-13
8. Lizuan.com	17-13
9. Padura	14-16
10. La Peña	13-17
11. Zarautz	13-17
12. Lagunak	17-13
13. Araberri	17-13
14. Biok Zerbitzuak	17-13
15. Autocares Artieda	9-21
16. Fundacion 5+11	2-28

HERRI KIROLAK

URREZKO AIZKOLARIAK

23 URTE AZPIKOAK

Finalerdiak	
Ander Erasun	16:18"
Ruben Saralegi	18:40"

URREZKO HARRI

JASOTZAILEEN

TXAPELKETA

Kanporaketa

Eizmendi	57 jasoaldi
Josetxo Urrutia	55 jasoaldi

TRIATLOIA

III. BILBOKO TRIATLOI

LASTERKETA

Saillkapena

1. Aimar Agirresarobe	
	04:19:01"
2. Fernando Gomez	
	04:19:18"
3. Richard Calle	
	04:20:31"
4. Marcel Zamora	
	04:21:20"
5. Albert Moreno	
	04:22:54"
6. Andrew Staryk	
	04:25:58"
7. Jose M. del Real	
	04:28:49"
8. Iker Leonet	
	04:29:45"
9. Egoitz Zalakain	
	04:34:07"

Buruz burukoan Oinatz Bengoetxeak maisutasunez irabazi dio Jon Jaunarenari

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan eskualdeko hiru taldeek aurrera egin dute



Zizurkilgo taldeak aurrera egin du Gipuzkoako herriartekoan. HITZA

Asier Imaz

Oinatz Bengoetxeak erakustaldia eskaini zuen larunbatean Hendaian. Buruz buruko txapelketaren final-laurdenetan bi leitzarren arteko partida suertatu zen. Alde batetik, txapelketa bikaina egin duen Jon Jaunarena irten zen kantxara, eta bestetik, banakakoan estreinako partida jokatzeko zuten Oinatz Bengoetxea. Zalantzak bi aldeetan zeuden: Jaunarena zertarako gai izango da txapeldun baten aurrean? Bengoetxea VI.aren lehen partida izaki, ezustekoa gerta al daiteke?

Zalantza horiek partidaren hasieran bere horretan iraun zuten, baina Bengoetxea partidaren sartu zenean, dena argi gelditu zen. Leitzarrene txapeldunak buruz burukoan izugarritzko sendotasuna erakusten du, eta irabazi nahi dio, izerdi pranko bota beharko du. Gaztea saiatu zen, baina sake errematean izugarritzko mina egin zion Bengoetxeak, eta defentsan parekorik ez duela erakutsi zuen berriz ere beterenoak. Amaieran, 22-10 legeztatu zuen markagailuak. Hemendik aurrera, ordea, dituen dohaiak konfiantza hartuta, esperientziaren izangaz gero eta gogorragoa izango da Jaunarenari aurre egitea.

Herriartekoan denek aurrera

Gipuzkoako Herriarteko Esku Pilota Txapelketako final hamaseirenak erabaki dira. Tolosaldeko

hiru herriek aurrera egin dute, itzulerako partidetan ere garaipenak eskuratu ondoren. Tolosak Zumarragaren aurka jokatu zuen, eta Alegiak Zestoa izan zuen arerio. Joaneko partidetan bezala, itzulerakoetan 2-leko emaitza lortu zuten eskualdekoek euren alde. Ondorioz, kanporaketa 4-2 irabazi dute. Final zortzi-errenetan, Alegiak Bidegoianen aurka jokatu du, eta Tolosak Berrobi izango du aurkari.

Zizurkilgo ostiralean jokatu zuen itzulerako Lezoren aurka, etxetik kanpo. Eskualdeko pilotariak 1-2 gailendu ziren. Gari-Arregi kadeteek 22-10 irabazi zuten; Labaka-Erasun jubentleak 22-5 eta Lizaso-Arruti nagusiek, berriz, Zizurkil izandako 22-7 emaitza errepikatu zuten, baina alderantzizko norabidean, egun traketsen ondorioz. Joaneko eta itzulerako partidak amaitu ostean, kanporaketa 5-leko emaitzarekin amaitu zen. Final zortzi-errenetan Bergarako taldearen aurka ariko dira zizurkildarrak, eta kanporaketa zaila izango dela aurreikusiten dute: «Taldea hau 2011. urtean Euskal Herriko eta Gipuzkoako

herriarteko txapelketa izan zen. Aurten ere talde oso sendoa dute». Kanporaketa hau, Zizurkil dataroten maiatzaren 24an, ostiralean, hasiko da, 19:30ean.

Ogi Berrin, ikusle ugari

Larunbatean, Tolosako Beotibar pilotalekuan 280 ikusle inguru elkartu ziren. Migel Soroaren Oroimenezko I. Ogi Berri Txapelketaren hiru partida jokatu ziren bertan, eta lehia politik ikusteko aukera izan zen. Kadeteetan, partida oso gogorra ateratu zen, azken tantora arte emozioa izan zuena gainera. Tanto bakarrez galdu arren, Beloki atzelariak erakustaldia eskaini zuen. Jubentletan, partida hasiera ikusgarria eta bizia izan zen. Ikusleen gozamena, ordea, hor gelditu zen, Alduntzinen nekeak eta Altunaren erakustaldiak markagailuan alde zabalduta baitzuten. Partida 22-10 amaitu zen. Azken lehian, Arrieta-Goikoetxeak bikote sendoa osatzen dutela erakutsi zuten. Urbieta saiatu zen, eta ez zuen partida galdutzat inoiz eman, baina aurkariak gehiago izan ziren, 22-15 nagusituz.

Ruben Saralegi eta Josetxo Urrutia lehiatik kanpo gelditu dira

A. Imaz Leitza

Herri kirolen inguruan izugarritzko lana egiten ari dira Leitza. Kirolariak osatzeaz gain, jaialdi ugari antolatzen dituzte Amazabalen, eta horrek lehenengoieki balesa azaltzen die. Igandean, Ruben Saralegi eta Josetxo Urrutia herriartaren aurrean aritzea aukera izan zuten, eta emaitza hoberenak lortu ez arren, zaleen be-

rotasuna gertutik sentitzeko parada bizitu zuten.

Urrezko Aizkolarien 23 urte azpikoan aritu zen Ruben Saralegi, finalerdietan, Ander Erasunen aurka. Azken hau izan zen nagusi. Ongi hasi zen leitzarrena eta lehen bi ariketetan alde lortu zuen. Gakoa, ordea, 60 ontzako enborrean egon zen. Erasunen hiru minutu eta 16 segundotan moztu zuen, eta Saralegi, bost

minutu eta 17an. Alde horri buelta ematea ezinezkoa izan zitzaion leitzarrena, eta azken ariketan ere denbora galtzea tokatu zitzaion.

Aizkolariez gain, Urrezko Harri-jasotzaileak ikusteko aukera egon zen Amazabalen. Josetxo Urrutia herriartaren Eizmendiren aurka jokatu zuen kanporaketa, eta zaleen babesa izan arren, bi jasoaldiko tarategatik galdu zuen lehia, txapelketatik at geldituz.



III. Bilboko Triatloieko une batean, Aimar Agirresarobe tolosarra bizikleta gainean. HITZA

Bilboko Triatloian bere bizitzako lasterketa egin duela esan du Agirresarobek

Tolosarrak faborito guztiak gainditu ditu; eskerrak eman dizkie lasterketa ikustera gerturatu diren guztiei

Asier Imaz Tolosa

Azken asteetan Hendaian eta Deban emaitza onak lortuta iritsi zen Bilbora Aimar Agirresarobe triatloilaria. Gorputzaldi on horri esker, garaipen handia lortu zuen larunbatean III. Bilboko Triatloian.

Igerian eta bizikletan ibili ondoren, hirugarren zatira hirugarren postuan iritsi zen tolosarra. Korrika, iazko irabazlea gainditu zuen lehenik, Mikel Elgezabal. Ondoren, Richard Calle estatubatuarrekin gauza bera egin zuen. Azken kilometroetan, Fernando Gomez korrikalari trebea gertu izan zuen Agirresarobek, baina helmuga gainditzen lehena izan zen tolosarra, eta bere kirolari ibilbideko lorpenik garrantzitsuenetakoa eskuratu zuen Bil-

bon. Egoitz Zalakain tolosarra berderatzigarren sailkatu zen, irabazlearengandik hamabost minutura.

Emakumeei dagokienez, Virginia Berasategi bilbotarra izan zen garaile hirugarren aldiz jarraian, eta atzetik Åsa Lundström eta Estefania Gomez sailkatu ziren.

«Bizitza guztian ospatzekoa»

Aimar Agirresarobe Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideak lau ordu, 19 minutu eta segundo bat behar izan zuen proba amaitzeko. Bigarren sailkatu zen Fernando Gomez 17 segundo atera zizkion, eta hirugarrenagoari, Calle estatubatuarri minutu eta 30 segundo. Lasterketaren amaieran, ETBko lankideen aurrean, zoriontsu agertu zen tolosarra: «Nire bizitzako lasterketa egin dut. Eguraldia euskaldunontzat hobearen, ohiitagoak gaudelako, eta egia esan, hiru disziplinetan oso ondo sentitu naiz: izugarritzko lasterketa atera zait».

Triatloia igeri probarekin hasi zen, eta hor, uste baino hobeto ibili zela esan zuen Agirresarobek:

«Ez nuen espero uretatik lehen 20ren artean ateratzea, baino buruarekin ibili naiz, eta oso ondo. Banekien itzulerakoan korrontea aurka edukiko genuela, eta indarrak gorde behar nituela». Bigarren zatian, triatloilariak bizikleta hartu zuten, eta tolosarra bere «terrenoan» ibili zen, aurkariak gaindituz. Azken proban, korrikakoan, helburua garbia zen Agirresaroberentzat: «Ahal nuen gehien estutzea eta eustea; banekien atzetik jende oso azkarra etorriko zitzaidala. Lehen itzulian oso gaizki pasatu dut, hoztura hasi baikara guztiok. Bigarrenean, aldiz, oso ondo sentitu naiz».

Lehen hiru postuetan amaitzea sari handia izango zelakoan hasi zuen proba Agirresarobek, baina ez zuen espero inondik ere garaitzen. Horregatik, ospakizunen inguruan galdetuta, bizi osoan ospatuko duela esan zuen tolosarra, zoriontsu. Azkenik, esker hitzak ere izan zituen Aimar Agirresarobek: «Lasterketa ikustera etorri den jende guztiari eskerrak eman nahi dizkiet; izugarri animatu naute ibilbide osoan zehar».

Ibarrak liga billabonatarren laguntzaz irabazi du

Hirugarren mailako areto futbol denboraldia asteburuan amaitu zen; ez dago argi zein talde igoko den goiko mailara

Asier Imaz

Hirugarren mailako areto futbol txapelketa asteburuan amaitu zen. Azken partidaren erabaki zen liga, eta hor, Ibarrako taldeak Villabonako Egintzaren laguntza izan zuen. Azken jardunaldira, ibartarrak bigarren postuan iritsi ziren, 68 punturekin. Gasteizko aurrera, 70ekin, lehen postuan zegoen. Liga irabazteko faborito argiak, beraz, arabarrak ziren. Gasteiztarrei, ordea, dena aldrebes irten zitzaion.

Ibarrak etxean erraz irabazi zion Santurtziri, 7-2ko emaitzarekin. Liderraren partidaren faltan, behin behinean sailkapen nagusiko lehen postuan jarri ziren moreak. Santurtzik etxetik kanpo jokatzen zuen, Villabonan hain zuzen ere. Egintza aurretik jarri ziren 3-1eko markagailuarekin, eta gasteiztarrek urduritasunak gainditu zituen.

Erreakzionatzen saiatu arren, partida 5-5 amaitu zen. Puntuen galerak ligaren galera ekarri zuen Aurrerakoentzat, ibartarren zorionerako.

Igo edo ez igo

Denboraldia indartsu hasi zuen Ibarrak, eta lehen itzulian jaun eta jabe izan ziren. Beherakada tartean etorri zen, lortutako puntua errenta galtzerainoko txakalaldia hain zuzen ere. Azken txanpan, hasierako sentsazioak berreskuratu zituzten moreek, eta bigarren postua txiki gelditu zitzaion azken jardunaldian. *Txubel* entrenatzailea «oso gustura»

agertu da bere mutilekin: «Ezustekoa izan da, ez baikenuen euren emaitza horrekin kontatzen. Egintza sailkapenean beheran dagoen taldea da, eta horrek areagotu egin du ezustekoa. Denboraldia, oro har, oso ona izan da; gazteek bikain erantzun dute, eta orain ikusi egin beharko da».

Hirugarren mailan lehen postuan amaitzen duen taldeak bigarren B mailara igotzeko txartela eskuratzen du zuzenean. Iaz, Ibarrak lortu zuen eskubide hori, baina arrazoi ekonomikoak medio, salto egiteari uko egin zioten. Aurten, egoera ez da hobetu, baina hala eta guztiz ere, lehenik eta behin jokalariek hitz egin behar dela dio *Txubel*-ek: «Hurrengo astean hasiko gara horretaz hitz egiten, baina ez da erraza izango. Zuzendaritzan bi kide besterik ez gaude; hainbat jokalaritan lehen hasi dira, erreleboetan eta abar; denboraldia luzea izaten da... Erabaki horren atzean gauza asko daude, eta gakoak jokalariek eurar dira, igotzearen aldeko apustua egiten baldin badute, saiatu daitekeelako lantegi horretan».

Entrenatzaileak berak jarraitzeko gogoia duela iragarri du, nahiz eta berarentzat ere urte gogorra izan den: «Entrenatzaile titulato ateratzen ibili naiz astelehenero eta larunbatero klaseetara joanaz. Gero lana dago, entrenamenduak, partidak... Gogorra izan da, baina jarraitzeko ilusioarekin nago».

Ospakizunen garaia da orain, eta aurrera begira jartzeko unea iritsi, iritsiko da. Gozatzeko arrazoiak ugari dituzte, eta datuak begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko: «Gol gutxien jaso dituen taldea izan gara; gehien sartu dituztenen artean bigarrenak gaude, eta partida gutxien galdu dituen taldea gara».

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Giza eskubideen alde, plazak betez

Herrira mugimenduak deituta euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan hainbat ekimen egin dira

Eneritz Maiz

Herrira-k antolatutako Plazak Bete ekimena egin zuten larunbatean, Euskal Herriko plazetan. Tolosaldean eta Leitzaaldean ere herritar ugariak bete zituzten, plazak. Eguerdian izan ziren ekitaldi gehienak, eta eguraldi petralaren gaitetik kalera atera ziren hainbat herritar, aldarrikapen mezuak zabalduz.

Besteak beste, ondorengo herritarren elkarturik ziren: Ibarra 100 pertsona, Larraul-Asteasu 65 pertsona, Amasa-Villabona 108 pertsona, Orendainen 45 pertsona, Anoetan 98 pertsona, Leaburu-Txaraman 15 pertsona, Zizurkil 145 pertsona, Berrobin 22 pertsona, Ikaztegieta 28 pertsona, Lizartza 160 pertsona, Tolosa 100 pertsona, Berastegi 70 pertsona, Gaztelu 26 pertsona, eta Altzo 45 pertsona.



Zizurkil, Ibarra, Leaburu-Txaraman eta Lizartza herritar ugari elkartu zen. HITZA



Anoeta, Villabona eta Asteasuz gain, Tolosaldeko hainbat iheslarik ere bat egin dute Herrira-k deitutako ekimenarekin. HITZA

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Asteasu, Gaztelu eta Villabona.** Tolosaldeko Mankomunitatearen *Birziklapen bira* Asteasu, Gaztelu eta Villabona herritan izango da, hondakinak birziklatzearen garrantzia herritarrei erakusteko.
- **Ikaztegieta.** Odola emateko aukera izango da, 19:00etatik 21:00etara, kiroldegian.
- **Leitza.** Leitzako XXXVI. Kultur Aroaren barruan, 09:30ean, Peruharria ibilbidea egingo dute, institutuko ikasleek. 20:00etan, Elikadura subiranotasunari buruzko hitzaldia, EBEL-eko Aina-ara Urrizarekin, Aurreran.
- **Tolosa.** Aste iraultzailearen barruan, *Gazteria eta iraultza* hitzaldia izango da, Engels Ate-nea, 19:30ean. Hizlaria, Urtzi Reguero izango da.
- **Tolosa.** Maiatza Gorria jardunaldiaren barruan, *Kannabisaren kontsumo arduratsua* hitzaldia izango da, Otsabi elkar-teen. 19:00etan hasiko da Belarrak kalamu elkar-teen eskutik.
- **Zizurkil.** Maiatza Saltsan ekimenaren barruan, *Segundo Montes libre de analfabetismo* hitzaldia izango da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 0915.
- **Lekunberri.** Campos, M. Z. Elbarran, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-ena eta iritzien erantzukizunik.

AHORA!
ASTEA
KMK 13 TOLOSA

GAUR
19:00etan Karlos Linazasorenen poesia emanaldia Liburutegian
20:30ean Udal Txistulari Bandaren kontzertua Topic-en

BIHAR
19:00etan Kultur Etxean "Familia eta nerabeen kontsumoak alkohol kontsumoaren prebentzioarako" saioa

Aste osoan (17:00-20:00):
Tolosako euskal idazleak erakusketa Liburutegian eta Ahora pintxoak tabernetan

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Dena batera: telebista, DVD, irratia, MP3...

KOPARIA OPARI PROMOZIONALAK ETA MERCHANDISINGA S.L.
Gudarien etorbidea, 29
ANDOAIN 20140 - GIPIZKOA

Prezioa **90€**

www.mauka.eu **berria** taldea